
GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRA

2019-2030

Zirriborroa

Donostia-San Sebastián

2018ko maiatzaren 29a

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Medio
Ambiente y Obras Hidráulicas

Lanaren zuzendaritza:

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia

Ingurumena eta Obra Hidraulikoak departamentua

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Talde idazlea:

 cimas	CIMAS, Innovación y Medio Ambiente, S.L.L
<ul style="list-style-type: none">· Mikel Garay Ugarte: Industria Ingeniaria· Cristina Gil Giraldez: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Liz.· Miren Arretxe Zamakona: Biologia Zientzien Liz. eta Ekotoxikologian Doktorea· Zigor García Gorrotxategi: Topografia-Ingeniari Teknikoa eta Geografian Liz.	
	Desarrollo Protección Ambiental, S.L
<ul style="list-style-type: none">· Xabier Garmendia Martínez: Industria Ingeniaria	



Mikel Garay



Cristina Gil



Xabier Garmendia




Zigor García



AURKIBIDEA

1	HASIERAKO HAUSNARKETAK	6
1.1	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokor berria, 2019-2030 (GHHKPO 2019)	6
1.2	GHHKPO 2019ren aurrekariak eta xedea	6
1.3	GHHKPO 2019ren edukia	7
1.4	GHHKPO 2019ko definizioak eta kudeaketaren aldez aurreko kontzeptuak	9
1.4.1	GHHKPO 2019ren xedea, lurralde-esparrua eta denbora-muga	10
1.4.2	HH hondakinen sailkapena GHHKPO 2019n	10
1.4.3	GHHKPO 2019ren xede diren hondakinak	11
1.4.4	Lehen mailako hondakinak, bigarren mailako hondakinak eta azken hondakinak	12
1.4.5	Hondakinak kudeatzeko goi-horniduraren eta behe-horniduraren sareak	12
1.5	GHHKPO 2019ren printzipio estrategikoak	14
1.6	GHHKPO 2019ren hautabide estrategikoak	15
1.6.1	Prebentzioa maximizatzea	15
1.6.2	Ahal den lehen mailako hondakin gehien gaika biltzea eta birziklatzea	15
1.6.3	Ahal den biohondakin gehien gaika jasotzea eta konpostatzea eta biometanizatzea	16
1.6.4	Sortzen diren bigarren mailako hondakinei baliorik handiena ematea	16
1.6.5	Lehen mailako hondakinen zero isurketa	17
2	2008-2018 ALDIAN GERTATU DIREN GARAPEN ESTRATEGIKO ETA JURIDIKO BERRIAK	18
3	GHHKPO 2019ren XEDE DIREN HONDAKINEN BILAKAERA, 2008-2017 ALDIAN	20
3.1	HONDAKINEN BILAKAERA 2008-2017 ALDIAN	20
3.2	HIRI HONDAKINEN KARAKTERIZAZIOA ETA KONPOSIZIOA	23
3.3	BIZTANLEKO HH HONDAKINEN ALDAKUNTZA TASEN ETA BIZTANLEKO BPGren ALDAKUNTZA TASEN ARTEKO HARREMANA, 2008-2014	23
4	SORRERAREN PROGNOZIA	25
4.1	AD 2008ren PROGNOZIAREN ETA 2007-2014 BITARTEAN BENETAN GERTATUTAKOAREN ARTEKO ALDERAKETA, HAINBAT ALDAGAI AINTZAT HARTUZ	25
4.2	2017-2030 ALDIAN SORTUKO DIREN EH, IMEHA, HH HONDAKINEN PROGNOZIA GAURKOTZEA	25
5	GHHKPO 2019-2030en KUDEAKETA HELBURUAK	27
6	GHHKPO 2019ren KUDEAKETA PROGRAMAK	29
6.1	PREBENTZIO PROGRAMA	29
6.2	BERRERABILTZeko PRESTATZeko PROGRAMA	30
6.3	GAIKAKO BILKETARAKO ETA BIRZIKLATZeko PROGRAMA, KONPOSTATZEA/BIOMETANIZATZEA BARNE HARTZEN DITUENA	30
6.4	BESTELAKO BALORIZAZIOEN GAINEKO PROGRAMA	32



6.5	EZABAPENA OPTIMIZATZEARI BURUZKO PROGRAMA	32
7	BEHARREZKO AZPIEGITURAK	33
8	INBERTSIOAK eta FINANTZAKETA	36
9	KUDEAKETAREN ANTOLAMENDUA	37
10	JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TRESNAK	38
11	PARTAIDETZA PUBLIKOA	39
12	GENEROAREN ERAGINAREN EBALUAZIOA	40
13	KLIMA-ALDAKETA ETA BZA	41
14	NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK	42
15	ERANSKINA	43
15.1	GHHKPO-ADren Prognosia gaurkotzea Dokumentua	43

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1.	Gipuzkoako hiri hondakinen gaikako bilketaren datuak.	20
Irudia 2.	Gipuzkoako hiri hondakinen korrante nagusien gaikako bilketaren datuak.	21
Irudia 3.	Egun Gipuzkoan dauden hiri hondakinen azpiegitura publikoak.	22
Irudia 4.	Egun hiri hondakinen birziklapenak Gipuzkoan duen egoera eta ezarritako helburuekiko dagoen distantzia.	28

1 HASIERAKO HAUSNARKETAK

1.1 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokor berria, 2019-2030 (GHHKPO 2019)

3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, lurralde historikoetako foru organoei hiri hondakin solidoen kudeaketa esparruaren plangintza garatzeko eskumenak aitortzen dizkie, hondakinak kudeatzeko udal jardunak koordinatzekoa eta baita horiek kudeatzeko udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzekoa ere

Kontuan izan behar da, abenduaren 28ko 8/2016 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, GHHKPO 2002-2016 eta haren Aurrerapen Dokumentua 2008-2016, 2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren bidez onartu zirenak, erabat aplikatu beharrekoak izango dira bi dokumentuetan jasotako zehaztapenak eta azpiegiturak exekuzio osoa guztiz bete arte. Gipuzkoako Hiri Hondakin Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketaren behin betiko onarpenarekin, apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez (GAO 71, 2018ko apirilaren 13koa), eta gainontzeko azpiegituren eraikuntza 2019. urtean izango dela aurreikusiz, aipatutako GHHKPOan zehaztutako kudeaketa eredian aurreikusitako azpiegitura guztiak osatuko dira eta, ondorioz, indarrean dagoen planifikazioa agortu egingo da. Horrenbestez, Gipuzkoako Hiri Hondakin Kudeaketarako plangintza berri bati ekin beharra dago.

Horren ondorioz, eta haren eskumenak baliatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, datozen urteotan estatu eta autonomia erkidego mailan hiri hondakin kudeaketa gaitan ezarritako esparru-plangintza garatuko duen Plan berri bat prestatzeko beharra bere gain hartu du.

2019-2030 aldiari dagokion jarduteko denbora-muga ezarri da, , aintzat hartzen da araudi berrien edo maila handiagoko bestelako plangintzarako elementuen arabera berrikusi eta eguneratuko dela, eta baita haren egikaritze-mailaren arabera berrikusi eta eguneratuko dela ere. Amaierako urtea 2030 izango da, Europa mailan, urte horretarako "Ekonomia Zirkularren Paketea" izenez ezaguna denaren baitako helburuak ezarri baitituzte.

Prebentzioan eta ekonomia zirkularrean oinarritzen den plan berri bat da, eta plan horri esker Gipuzkoak politika horietan aurrera egiteko aukera du eta ekonomi zirkular baterako trantsizioan aurrealdean kokatzen du Gipuzkoa, Europako gehien garatutako herrialdeen mailan. Bestalde, garapen iraunkorrerako eta lanpostu berdea sortzeko aukera bat da ere.

1.2 GHHKPO 2019ren aurrekariak eta xedea

AD 2008 2002ko abenduaren 17an Diputatuen Kontseiluan onetsitako GHHKPO 2002ren berrikuspen gisa sortu zen, haren garapenean berrikuntza garrantzitsuak txertatuz. Besteak beste, biohondakin kudeaketa etxeko eta hiriko eremura hedatu zuen, eta hiri hondakinak, horien balorizazio energetikoa egin aurretik, tratatzeko Tratamendu Mekaniko Biologikoko (TMB) planta bat gehitu zuen.

Guztiz kontinuitate zenez, AD 2008ren denbora-muga bat zetorren GHHKPO 2002an ezarritakoarekin; hori horrela, 2016raino luzatu zen haren indarraldia, 1999ko apirilaren 26ko Kontseiluaren 1999/31/EE Artetzarauak, hondakinak isurtzeari buruzkoak, biohondakinen isurketentzat adierazten dituen mugen arabera hautatuz.

Halaber, estatu mailan (PEMAR) Hondakinak Kudeatzeko Estatuko 2016-2022 Esparru Planaren bidez ezarritako esparru-plangintza garatuko du Planak, eta baita erkidego mailan 2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean ezarritakoa ere. Halaber, Europako Batasunean hiri hondakinentzako ezarritako helburuak kontuan hartuko ditu.

Aurrerantzean, aurreikusitako berrikuspenek etorkizunean plan eta arauetan egingo diren aldaketetara egokituko dute GHHKPO 2019 berria. Bestalde, aintzat hartuko dira Europako Batzordeak ekonomia zirkularrarekin lotuta onetsitako neurri berriak.

Testuinguru horretan, Europa, estatu eta erkidego mailako hiri hondakinen gaineko araudi eta plangintzetatik baldintza teknikoak, ingurumenekoak, sozialak eta ekonomikoak aintzat hartuta, eta egun Gipuzkoako Lurralde Historikoak duen egoera abiapuntutzat hartuta, 2019-2030 aldiko hiri hondakinen kudeaketa orokorraren plangintza egiten duen dokumentua idatziko da. Dokumentu horrek hainbat eszenario proposatu eta baloratu beharko ditu, sortzen diren hiri hondakinen bilakaeraren arabera direnak.

1.3 GHHKPO 2019ren edukia

GHHKPO 2019 edukien arabera hiru zatitan banatzen da:

- A zatia. Arau berriak, hiri hondakinen kudeaketaren egungo egoera eta etorkizunean sortuko diren hondakinen eta horien tratamendu beharren prognosia.
- B zatia. GHHKPO 2019ren garapena.
- C zatia. Antolaketari eta ekonomia eta finantzei lotutako alderdiak.

A zatiak 2008-2017 aldiari dagozkion alderdi hauek aztertzen ditu:

- 1. Atala. GHHKPO 2019ren garapenaren esparru orokorra.
- 2. Atala. Hiri hondakinen sorrera eta kudeaketak 2008-2017 aldiari Gipuzkoan izandako bilakaera.
- 3. Atala. Sorreraren prognosia.
- 4. Atala. Tratamendu beharrak.

B zatiak GHHKPO garatzen du, programa hauetan:

- 5. Atala. Plangintza: Printzipio estrategikoak, helburuak, kudeaketa programak, kudeaketarako alternatibak eta beharrezko azpiegiturak.

Amaitzeko, C zatian etorkizunera begirako antolaketarekin eta gizartearen parte-hartzearekin lotutako alderdiak garatzen dira, eta baita ekonomia eta finantzekin lotutakoak ere. Horretarako, atal hauek ditu:

- 6. Atala. Kudeaketa eredua, kostuak eta finantzaketa.
- 7. Atala. Gobernantza Eredua.
- 8. Atala. Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko tresnak.
- 9. Atala. Herritarren partaidetza prozesua.
- 10. Atala. GHHKPO 2019k klima aldaketaren estrategian izango duen eragina eta BZA.
- 11. Atala. GHHKPO 2019k Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuei egingo dizkien ekarpenak.
- 12. Atala. GHHKPO 2019k eta generoaren ikuspegia.

Eduki horiek sobera betetzen eta gainditzen dituzte, 2008ko azaroaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren *2008/98/EE Arteztarauaren*, hondakinei buruzkoaren, arteztarau jakin batzuk indargabetzen dituenaren arabera, edo *Hondakinen Esparru Arteztaraua (HEA)* deritzonaren arabera, hondakinen plangintzen gutxieneko edukari buruzko lege eskakizunak, eta baita *hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak* eta Europako Batzordeak 2012an argitaratutako hondakin planak idazteko gida metodologikoak¹ ezarritakoak ere. Gutxieneko eduki horien laburpena jarraian dagoena da:

- Lurralde-esparrua.
- Egun hondakinen kudeaketak aintzat hartzen den lurraldean duen egoera aztertzea.
- Aldaketa klimatikoaren eta hiri hondakinen politikari buruzko aintzatespenak.
- Aipatu lurraldearen baitan sortutako hondakin mota, kopurua eta horien jatorria; lurralde horretatik garraiatuko diren hondakinen aurreikuspena eta etorkizunean hondakin-fluxuek izango duten bilakaeraren ebaluazioa.
- Elikagaien xahuketa eta izaera organikoko hiri hondakinak.
- Hondakin-bilketarako sistemak, Europar Batasuneko ekonomiarentzat garrantzia berezia duten lehengai kopuru esanguratsuak dituzten hondakinenak barne, horien hornidura Europar Batasunaren berariazko legediek adierazitako hornikuntza arrisku handiarekin edo hondakinen fluxuekin lotuta dagoenean.

¹ http://ec.europa.eu/environment/waste/plans/pdf/2012_guidance_note.pdf

- Prebentziorako, berrerabiltzeko prestaketarako, birziklatzeko, balorizatzeko eta ezabatzeko helburuak ezartzea, eta horiek 2008/98/EE Arteztarauan eta 22/2011 Legean eta hondakinei buruzko gainerako arauetan ezarritako helburuak lortzeari zein mailatan laguntzen dioten estimatzea.
- Berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa hobetzeko hartu beharreko neurriak.
- Bilketa sistema berriak izateko beharra, egun hondakinentzat dauden instalazioak ixteko beharra, hondakinentzako azpiegitura osagarriak instalatzeko beharra eta horiei dagozkien inbertsioak ebaluatzea.
- Balorizatzeko instalazio nagusiak.
- Kokalekua zein den jakiteko kokatze-irizpideak eta etorkizunean balorizatzeko egon daitezkeen instalazio nagusien gaitasun-irizpideak.
-
- Hondakinak kudeatzeko politika orokorrak, aurreikusitako hondakinak kudeatzeko teknologiak eta metodoak barne hartuz.
- Hondakinen kudeaketarekin lotutako antolaketa-alderdiak, hondakinen kudeaketaz arduratzen diren operadore publiko eta pribatuen arteko erantzukizun-banaketaren deskribapena barne.
- Aipatu lurraldean hondakinen kudeaketarekin lotutako alderdiei aurre egiteko tresna ekonomikoak eta bestelako tresnak erabiltzearen erabilgarritasuna eta egokitasuna ebaluatzea.
- Orokorrean biztanleria osoari edo kontsumitzaile talde zehatzei zuzendutako sentiberatze eta informazio kanpainak.

GHHKPO 2019k 1994ko abenduaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/62/EE *Arteztarauaren*, ontziei eta ontzien hondakinei buruzkoaren 14. artikuluan ezarritako baldintzak, Arteztarau beraren 11(2) eta (3) artikuluetan ezarritako helburuak eta 1999/31/EE *Arteztarauaren* 5. artikuluan aipatzen den zabortegetara bidaltzen diren hondakin biodegradagarriak murrizteko estrategian ezarritako helburuak beteko ditu.

Halaber, GHHKPO 2019k ekonomia zirkularra dela eta Europar Batasunean sustatzen ari diren arteztarauaren proposamen berriak kontuan izango ditu.

1.4 GHHKPO 2019ko definizioak eta kudeaketaren alde aurreko kontzeptuak

GHHKPO 2019k GHHKPO 2002an eta AD 2008n zeuden definizioak eta alde aurreko kontzeptuak mantentzen eta sartzen ditu haren edukian.

Horien artean, azpimarratzekoak dira jarraian adierazten direnak.

1.4.1 GHHKPO 2019ren xedea, lurralde-esparrua eta denbora-muga

GHHKPO 2002 eta AD 2008n bezala, helburu hau zehaztu du GHHKPO 2019k: “...hiri hondakinen etorkizuneko kudeaketaren bitartez, eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan ahalik eta homogeenoa izango den kostua izanda, kalitatezko zerbitzua bermatzea, eta, aldi berean, ingurumena ahal den hoberen babestea. Hori guztia burutu nahi da, indarrean dagoen araudia eta garapen jasagarriaren printzipioak betetzeko xedez”.

Beste alde batetik, GHHKPO 2019k hartzen duen lurralde-esparrua GHHKPO 2002rena eta aD 2008rena bera da, hau da “... Gipuzkoako Lurralde Historikoa, eta bertako zortzi mankomunitateak: Sasieta, Urola Erdia, Urola Kosta, Debagoiena, Debarrena, Tolosaldea, San Markos eta Txingudi. Mankomunitateen lurralde-esparrua Gipuzkoako Lurralde Historikoarenarekin bat dator, Debarrenako Mankomunitatearen kide diren Bizkaiko Lurralde Historikoko bi udalerrien kasuan izan ezik (Ermua eta Mallabia); hori horrela, bi udalerrri horiek Planaren xede izango dira”. Hori dela eta, GHHKPO 2019n, Gipuzkoa+ esango diogu benetako kudeaketaren lurralde-esparruari, hau da, Gipuzkoako lurralde osoari eta Bizkaiko Ermua eta Mallabia udalerriei.

Amaitzeko, GHHKPO 2019n zehaztutako denbora-muga 2019tik 2030era doa, 2030 erreferentzia urtetzat hartu delako Europako Batzordearen *Ekonomia Zirkularraren Paketean* sartutako helburu jakin batzuk betetzeko.

Nolanahi ere, eta gai horietarako, Planak prognosiaren dokumentuan egindako aintzatespenak barne hartuko ditu.

1.4.2 HH hondakinen sailkapena GHHKPO 2019n

Hondakinen eta lurzoru kutsatuen 22/2011 Legeak etxeko hondakinak (etxeetan sortutakoak) udal eskumenekoak direla ezartzen du, eta baita industria eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinen antzeko hondakinak eta saltokietako hondakinak ere².

Dena den, Europako Batzordeak 2018ko Ekonomia Zirkularraren Pakete berriaren baitan abiarazitako EU(2015)595 aldaketa-proposamenak, Hondakinei buruzko 2008/98/EE Arteztaraua edo Hondakinen Esparru Arteztaraua aldatzekoak, HEAren 3. artikuluan 1a idazpurua sartzea proposatzen du. Idazpuru horretan 10/1998 Legearen definizioan barne hartzen diren EH eta IMEHA korrontek sartzen ditu, zehazki, "Udal Hondakin"en definizioan eta, aldi berean, kanpo uzten ditu, berariaz, Eraikuntza eta Eraisketako Hondakinak (EEH) hondakinak eta HUAetako lohiak. Proposamen horrek hiri hondakinen kontzeptua argitzen du, aurretik dauden hondakinen estatistika eta foru planen antzeko moduan definitzeaz gainera.

² Saltokietako hondakinen bilketaren eskumena hautazkoa da toki erakundeentzat.

Itxarotekoa da, HEA aldatzeko proposamena onestearen ondorioz, 22/2011 Legeko aipatu definizioek asko ez irautea. Hala ere, GHHKPO 2019k kontuan izango ditu etxetako konponketak eta obrak txikiak egiterakoan sortzen diren obra hondakinak.

Horregatik guztiagatik, GHHKPO 2019k GHHKPO-ADn erabiltzen zen hiri hondakinen sailkapen berbera erabiltzen du:

HH= Hiri Hondakinak

EH = Etxeko Hondakinak

IMEHA = Industria, Merkataritza eta Instituzio hondakin Asimilagarriak

EEH= Eraikuntza eta Eraisketako hondakinak, etxeko konponketa lan txikietakoak

Aldi berean, sistematizazio honek behin betiko homogenotzen ditu, hondakin mota hauei dagokienez nazioarte mailan erabiltzen ziren sailkapenekin.

1.4.3 GHHKPO 2019ren xede diren hondakinak

Planak EH, IMEHA eta EEH hondakinak aintzat hartzeaz gain, kontuan hartuko ditu, batetik, kopuru txikietan dagoen amiantoaren arazoa, lan txiki edo antzekoetan agertzen dena, Gipuzkoako lurralde historiko osoan haren aurreko irtenbide bat emanez. Beraz, Garbiguneetan partikularren amianto hondakin kopuru txikiak jasotzeko zerbitzua eskaintzeko aukerak aztertuko dituen atal bat izango du Planak. Bestetik, autosufizientzia, gertutasun eta eraginkortasun irizpideetan oinarrituta, HUAetako lohiak aintzat hartuko ditu ere.

Hori horrela, GHHKPO 2019k jarraian aipatzen diren hondakin korronteen kudeaketaren plangintza hartuko du barne:

- EH, etxeko hondakinak, hiri hondakinen bi korronteetako bat.
- IMEHA, etxeko hondakinetan asimilagarriak diren industri, merkataritza eta instituzio hondakinak; hiri hondakinen bi korronteetako bat.
- EEH, eraikuntza eta eraisketako hondakinak, etxeko konponketa lan txikietakoak, dokumentu hau idazterakoan hiri hondakinak direnak.
- HUAetako lohiak, hiri hondakin uren araztegiako lohiak, hiri hondakin ez direnak.
- Amiantoa, partikularren amianto hondakin kopuru txikiak; hondakin arriskutsua dena.
- Lehen mailako hondakinak tratatzeko instalakuntzetan sortutako bigarren mailako hondakinak.

Amianto hondakinen kopuru txikiak beti kudeatuko dira bereizita; horiek izan ezik, HUAetako lohiak eta lan txikietako EEH hondakin birziklagarri eta erregaiak, hiri hondakinekin asimilagarriak diren frakzioak direnean, HH hondakinak kudeatzeko plangintzan sartuko dira.

1.4.4 Lehen mailako hondakinak, bigarren mailako hondakinak eta azken hondakinak

GHHKPO 2002 eta AD 2008n bezalaxe, GHHKPO 2019n hiri hondakinak, kudeaketaren ikuspegitik, lehen mailako hondakin eta bigarren mailako hondakin gisa sailkatzen dira; bakoitzari dagokion definizioa hau da:

- LEHEN MAILAKO HONDAKINAK, sortzaileengandik zuzenean gaikako bilketaren bitartez jasotzen diren hondakinak dira, sailkatzeko, bereizteko geroagoko prozesurik — birziklatzea, konpostatzea edo balioztatzeke beste prozesu batzuk— izan ez dutenak.
- BIGARREN MAILAKO HONDAKINAK: lehen mailako hondakinak tratatzean sortutako errefusak dira. Hau da, ontziak bereizteko eta sailkatzeko plantatan, birziklatzeko plantatan, materia organiko konpostagarria konpostatzeko eta materia horren biometanizazioa egiteko plantatan, edo materia horri energia berreskuratzeke errausketaren bidez balio energetikoa emateko plantatan sortutako errauskak.
- AZKEN HONDAKINAK: une bakoitzeko baldintza ekonomiko eta teknikoak kontuan izanik, tratamendua eman ezin zaien hondakinak dira, bai balioztagarria den zatia ateratzea ezinezkoa delako, bai dituzten kutsatzaileak edo arriskuak murriztu ezin direlako. Hori, Frantziako legeriak, edo Alemaniako 1994ko Legeak egin izan dutena da, substantzien eta hondakinen kudeaketaren ziklo itxiei buruzkoak, eta 1993ko TASI hondakinei buruzko araudi teknikoak gaiari buruz emandako definizioaren arabera. Orokorrean, Aurrerapen Dokumentuan emandako interpretazioaren arabera, azken hondakinak parekagarriak dira gorago definitutako bigarren mailako hondakinekin.

1.4.5 Hondakinak kudeatzeko goi-horniduraren eta behe-horniduraren sareak

Hiri-hondakinen kudeaketa elkarri lotuta dauden jarduketan eta azpiegituren multzo batez osaturik dago. Aipatutako jarduketak eta azpiegiturak, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa-kateari eta Gipuzkoaren esparruari dagokienez, hauek dira, zehazki:

- HH hondakinak biltzeko logistikaren definizioa eta edukiontziak hedatzea.
- Garbiguneak, minigarbiguneak eta mikrogarbiguneak kudeatzea.
- HH hondakinak masan biltzea eta tratatuko diren plantaraino edo transferentzia-estazioetaraino garraiatzea.
- Gaika bildutako HH hondakinak biltzea eta tratatzeko plantatara garraiatzea.
- Transferentzia-estazioak kudeatzea.
- Tamaina handiko hondakinak, ehungaiak, liburuak, eta abar prebenitzeko eta berrerabiltzeko plantak kudeatzea.
- Ontzi arinak bereizteko eta sailkatzeko plantak kudeatzea.

- Birziklatzeko plantak kudeatzea.
- Konpostatzeko eta biometanizazioa egiteko plantak kudeatzea.
- Tratamendu mekaniko biologikoko plantak kudeatzea.
- Balorizazio energetikorako planta kudeatzea.
- Zepak balorizatzeko plantaren kudeaketa.

Kudeaketa-jarduera multzo hori guztia bi jarduketa motatan sistematiza daiteke, hiri hondakinak kudeatzeko goi-horniduraren sarea eta behe-horniduraren sarea izendatuko ditugunak eratzen dituztenak.

BEHE-HORNIDURAREN SAREAren definizioa hau da: hondakinen sortzailearen eta hondakinak tratatzeko plantaren edo, bere kasuan, transferentzia-estazioaren artean burutzen den kudeaketari lotutako jarduketa eta azpiegitura multzoak osaturikoa, egokiak diren lurralde-mailek abian jartzen dituzten prebentzio-ekintzak barne. Zehazki, honako prebentzio-ekintza eta hondakinak kudeatzeko jarduketa eta azpiegitura hauek izango lirateke sarearen osagaiak:

- Prebentzio ekintzak, autokonpostatzea barne
- Herritarrak sentiberatzeko eta herritarren partaidetzarako ekintzak
- HH hondakinak biltzeko logistikaren definizioa eta edukiontziak hedatzea.
- Garbiguneak, minigarbiguneak eta mikrogarbiguneak kudeatzea.
- HH hondakinak masan biltzea eta tratatuko diren plantaraino edo transferentzia-estazioetaraino garraiatzea.
- Gaika bildutako HH hondakinak biltzea eta tratatzeko plantatara garraiatzea.

GOI-HORNIDURAREN SAREAren definizioa hau da: behe-horniduraren sarearen eta azken hondakinak amaieran behar bezala kudeatzearen arteko kudeaketari lotutako jarduketa eta azpiegitura multzoak osaturikoa, Lurralde Historikoan abian jartzen diren prebentzio-ekintzak barne. Zehazki, honako prebentzio-ekintza eta hondakinak kudeatzeko jarduketa eta azpiegitura hauek izango lirateke sarearen osagaiak:

- Lurralde Historikoaren esparruko prebentzio ekintzak.
- Herritarrak sentiberatzeko eta herritarren partaidetzarako ekintzak.
- Transferentzia-estazioak kudeatzea.
- Tamaina handiko hondakinak prebenitzeko eta berrerabiltzeko plantak kudeatzea.
- Ontzi arinak bereizteko eta sailkatzeko plantak kudeatzea.
- Birziklatzeko eta/edo berrerabiltzeko plantak kudeatzea.

- Konpostatzeko eta biometanizazioa egiteko plantak kudeatzea.
- Tratamendu mekaniko biologikoko plantak kudeatzea.
- Errausketa bidezko balorizazio energetikorako plantak kudeatzea.
- Zepa heltzeko plantaren kudeaketa.

Antolaketa publikoaren ikuspegitik, behe- eta goi-horniduraren sareen antolaketan gurutzatu egiten dira hiri hondakinak kudeatzen dituzten administrazioak, hau da: Udalak, Mankomunitateak, Kontsortzioa eta Foru Aldundia (GFA).

Oro har, behe-horniduraren sarea izango litzateke Udalek eta Mankomunitateek kudeatzen dutena, eta goi-horniduraren sarea, aldiz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren, bere sozietate instrumentalaren bitartez, GHK, kudeaketari lotuta egongo litzateke, hiri hondakinen politikak eta prebentzio ekintzak izan ezik, horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuko bailituzke, sentsibilizazio eta partaidetza arloko ekintzak ere.

1.5 GHHKPO 2019ren printzipio estrategikoak

GHHKPO 2002n eta AD 2008n jasota geratu zen bezala, Nazio Batuek zein Europako Batasunak, eta Estatu espainiarrak, Euskadiko Autonomia Erkidegoak garatutako hautabide, helburu, estrategia, politika eta printzipioak kontuan hartu ostean, GHHKPO 2019ren ekintza, kudeaketa proposamen eta azpiegiturak honako Printzipio Estrategikoetan oinarritzen dira:

- Gizakion osasuna eta ingurumena Babesteko Printzipioa.
- Kudeatzeko Hierarkia Bateratuaren Printzipioa.
- Autosufizientziaren Printzipioa.
- Hurbiltasunaren Printzipioa.
- Hondakinen Kudeaketa Iraunkorren Printzipioa.
- Kudeaketa Integratuaren Printzipioa.
- HH hondakinen sorrera Prebenitzeko Printzipioa.
- HH hondakinen balorizazioa Maximizatzeko Printzipioa.
- HH hondakinen isurketa Minimizatzeko Printzipioa.
- Administrazioen Subsidiarotasunaren eta Erantzukizun Partekatuen Printzipioa
- Prezioen Gardentasunaren Printzipioa.
- Gardentasunaren eta Parte-hartzearen Printzipioa.

- Produzitzaileren erantzukizun hedatuaren eta eragile guztien erantzukidetasunaren Printzipioak.
- Baliabideen bitzta-zikloaren eta ekonomia zirkularraren Printzipioak.
- Jasangarritasuna, merkatu berdea sustatzearen eta enplegua sortzearen Printzipioak.
- Kudeaketa eraginkorraren Printzipioa.
- Klima aldaketaren aurkako Printzipioa.
- Genero berdintasunaren Printzipioa.
- Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuen Printzipioa

1.6 GHHKPO 2019ren hautabide estrategikoak

GHHKPO 2019k GHHKPO 2002k eta AD 2008k egindako hautabide estrategiko berberak egiten ditu, hala dagokionean, jarraian adierazten den bezala adierazita eta zabaldua:

1.6.1 Prebentzioa maximizatzea

Prebentzioa maximizatzea proposatzen da, hau da, HH motako hondakinen sorrera minimizatzea, hondakinen murrizketak eta berrerabilpenak toki, eskualde eta lurralde mailatan dituzten mugen barruan, Planak horietan baitu jarduteko eskumena.

Prebentzioa, hondakinen alorrean, sorreran eta diseinuan, produkzioan, eta banaketa fasetan burutako jarduera multzo bat bezala ulertu behar da, hondakinak ez sortzeko, substantzia kaltegarrien kopurua murrizteko edo gizakiengan eta ingurumenean inpaktuak minimizatzeko.

Gipuzkoako hondakinen prebentzioak kontuan hartuko du estatu esparruko eta autonomiako plangintzan ezarritakoa, hau da PEMARen eta EAEko Prebentzio eta hondakinak kudeatzeko 2020 Planean ezarritakoa eta baita Europako araudiak esandakoa ere. Besteak beste, arreta berezia izango dute:

- Hondakinen kopurua murriztea (ontziak, bilgarriak..)
- Ekodiseinua bultzatzea
- Elikagaien xahuketa murriztea
- Produktuak berrerabiltzea eta horien balio bitzta luzatzea
- Materialetan eta produktuetan substantzi kaltegarrien kopurua murriztea
- Hondakinek sortu dezaketen inpaktu kaltegarriak gizakiengan eta ingurumenean murriztea

1.6.2 Ahal den lehen mailako hondakin gehien gaika biltzea eta birziklatzea

Nazioartean onarturik dago birziklatze eraginkor eta kalitatezkoa egitea bermatu nahi izanez gero, beharrezkoa dela lehen mailako hondakinak gaika edo era bereizian biltzea. Beraz, GHHKPO 2019n, ahal den etxeko hondakinen frakzio gehienek gaikako bilketa eraginkorra proposatzen da, eta zehazki hauei dagokienez:

- Biohondakinak.
- Mota guztietako paper-kartoia.
- Beira barnehutsa.
- Ontzi arinak: plastikoazko ontziak, metalezko ontziak eta ontzi konplexuak.
- Etxeko hondakin arriskutsuak.
- Ehungintzakoak.
- Zura.
- TEEHak.
- TEEH ez diren tamaina handiko beste hondakin batzuk: altzariak, tresneria, eta abar.
- Pilak eta bateriak.
- Olio begetalak.

1.6.3 Ahal den biohondakin gehien gaika jasotzea eta konpostatzea eta biometanizatzea

Lehen mailako hiri hondakinen osagarri diren EH eta IMEHA hondakin korranteetatik ateratako biohondakinen kopuru ahalik eta handienak konpostatze eta biometanizatze bidez tratatuko dira. Gehieneko kopurua sortutako konposta edo eratorritako produktuak erabiltzeko eta merkaturatzeko ahalmenaren arabera izango da.

Sortzen den konpostak ahalik eta kalitaterik handiena eduki behar du, A motakoa, eta merkaturatzeko moduko produktua izan behar da; bere kalitate mailak Estatuko araudiak eta Europako araudi zorrotzenek eskatutakoekin bat egin behar du, eta merkaturatu erabili eta saldu ahal izateko modukoa izan behar da. Kontuan hartuko da ere biometanizazio plantan sortuko den digestatoaren merkaturatzea.

1.6.4 Sortzen diren bigarren mailako hondakinei baliorik handiena ematea

Gaika, bereizita edo masan bildutako lehen mailako hondakinak birziklatzeko, konpostatzeko eta/edo biometanizatze, berrerabiltzeko prestatzeko, biologikoki eta mekanikoki tratatzeko edo energetikoki balorizatze plantetatik eratorritako bigarren mailako hondakinak tratatu egingo dira ondorengo hierarkia jarraituz: berrerabiltzeko, birziklatzeko, konpostatzeko eta/edo biometanizatze eta , geroago, horien energia baliatzeko helburuz, edo baimendutako kudeatzaile bitartez isurtzea, beharrezko tratamendua izanik, baldin eta

balorizaziorako aukerarik ez badago, balorizazio energetikoaren plantako errautsen kasuan . Horien birziklapenerako I+G+b ekintzez baliatuko da.

1.6.5 Lehen mailako hondakinen zero isurketa

Hondakinak isurtzeari buruzko 1999/31/EE Arteztarauak ezarritakoari jarraituz, GHHKPO 2019n, eta GHHKPO 2002 eta AD 2008n ere bai, zabortegean utziko dira, bakar bakarrik, tratamendua izan duten hondakinak. Hau da, bigarren mailako hondakin gisa definitu ditugunak. Beraz, GHHKPO 2019n, sortutako lehen mailako hondakinen zero isurketa aukeratu dugu (hautabide estrategiko honen azalpen zehatzagoa nahi izanez gero, ikus GHHKPO 2002, 16.1. atala). Ekonomia zirkularraren pakete berriak isurpenen arteztarua berri bat proposatzen du, non 2030ean HHn sorreraren %10 soilik isurtu ahalko da.

Hautabide estrategiko horri jarraituz, GHHKPO 2019n azaldu nahi izan den helburua, GHHKPO 2002n eta AD 2008n bezala, lehen mailako hiri hondakinik ez isurtzea da; hau da, ez botatzea aurretiaz tratamendu bat edo tratamendu batzuk izan ez dituzten hondakinak, tratamendu horiek ahalbidetzen baitute hondakinek dituzten baliabideak –materialak, energia– erabiltzea eta/edo duten arriskugarritasuna murriztea, azken tratamendua baino lehen. Zehazki, ez da zabortegean botako alde aurretik konpostatu ez den eta/edo biometanizazioa izan ez duen biohondakinik, edo energia-aprobetxamendurik atera ez zaionik. Beraz, GHHKPO 2019n, azken hondakinak soilik isurtzea proposatzen da, hau da, tratamendu-plantatan errefusa gisa sortutako eta aprobetxamendurik izan ez dezaketen bigarren mailako hondakinak soilik isurtzea.

Kudeaketa plan honek zabortegeirik gabeko hondakinen kudeaketa integrala hartzen du aintzakotzat. Helburu horrekin, EBko hierarkiako tratamendurako goiko alternatibak hautatu dira.

2 2008-2018 ALDIAN GERTATU DIREN GARAPEN ESTRATEGIKO ETA JURIDIKO BERRIAK

Aldi honetan zehar, hondakinekin lotutako dokumentu estrategikoek zein hondakinen kudeaketari eragiten dioten arau-testuek beraiek garapen natural bat izan dute.

Garapen estrategiko horiek eta araudietan gertatutako aldaketek ez dakartzate aldaketa esanguratsuak aurreko GHHKPO idazteko orduan aintzat hartu ziren oinarriei dagokienez, baina, kasu batzuetan, bere garaian indarrean zeuden birziklapen-helburuak berrikusi behar dira edo, sektoreko korrante batzuetan, hondakinak birziklatzeko eta kudeatzeko eskakizun berriak sartu behar dira. Beste kasu batzuetan, araudian gertatutako aldaketek plangintzaren alderdi txiki batzuei eragiten diote, edo herritarren partaidetza antolatzeari.

Aldaketa horiek hiru maila administratibotan (Europakoa, Estatukoa eta Erkidego mailakoa) gertatu direnez, ezinbestekoa da horien helmena aztertzea, Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren plangintza egokiari dagokionez.

Horren ildotik, GHHKPO 2019k hiri hondakinen kudeaketa baldintzatzen duten Europa-, Estatu- eta Erkidego-mailako legeria, plan eta programa estrategikoak aztertuko ditu, egun indarrean daudenak, eta sortzen ari direnak. Hori guztia "2015eko abenduko GHHKPO-ADren Prognosia gaurkotzea"³ dokumentuaren 4. atalean jasotzen den analisitik abiatuta egingo da eta, beharrezkoa balitz, haren edukia eguneratu egingo da, plangintzan txertatuz.

Plana idazteko esparrua, funtsean, jarraian aipatzen diren araudietan jasotakoak osatzen du:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 19ko 2008/98/EE Arteztaraua, hondakinei buruzkoa, arteztarau jakin batzuk indargabetzen dituena. (Hondakinen Esparru Arteztaraua)
- Europako Batzordeak 2015eko abenduaren 2an ezagutzera eman zuen ekonomia zirkularraren neurrien *Ekonomia Zirkularraren Paketea*, hondakinekin lotutako eta berrikusitako lege-proposamenak jasotzen dituena. Zehazki, EBko Kontseiluak joan den 2018ko maiatzaren 22an onetsi zituen lege-proposamen horiei buruzko behin-betiko legeak.
- Espainiako Ekonomia Zirkularraren Estrategia eta Euskadiko Ekonomia Zirkularraren strategiaren proposamena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko (EB)2015/70 Arteztaraua, plastikozko poltsa arinei dagokienez, 94/62/EE Arteztaraua aldatzen duena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

³ Dokumentu honi Eranskin gisa atxiki zaio

- Planari dagozkion bestelako gaietarako ildo eta helburu zehatzak ezartzen dituzten Europako (Arteztarau eta Araudiak), Estatuko eta Erkidegoko bestelako arauak.

Eta estrategia eta plan hauetan:

- Plastikoaren Europako estrategia ekonomia zirkular batean.
- Baliabideen eraginkortasunari buruzko ekimena: elikagaien xahuketa murriztea, elikagaien segurtasuna hobetzea (Europako Parlamentuaren 2017ko maiatzaren 16ko Ebazpena).
- Ekonomia Zirkularraren Espainiako Estrategia (Plan hau idazten den datan, onespenez prozesuan dago)⁴.
- 2020rako EAEko⁵ Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana, EAEn Hiri Hondakinen kudeaketa hobetzeko Gida teknikoaren zirriborroarekin batera.

Planak 2050erako Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia (KLIMA 2050 Estrategia) ere izango du oinarri. Klima aldaketa mende honen ingurumen-erronka handietako bat da eta, etorkizuneko aukerak nazioartean hartzen diren erabaki eta bide-orrien arabera badira ere, beharrezkoa da horiei laguntzeko tokiko konpromiso eta neurriak egotea.

GFAk klima aldaketaren aurkako borroka estrategia propioa zehaztu du (2018ko maiatzaren 29an onartua Foru Dekretu bidez), Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika guztietan zeharkakotasunez klima aldaketaren aurka borrokatzeko, betiere haren eskumenen barruan. Estrategia hau klima-gobernantzarako tresna izan behar da, eta departamentu eta erakundeen arteko zeharkako politikak izango ditu, Gipuzkoara jarduketa-esparru koordinatua eramango dutenak, klima aldaketaren eraginak arintzeko eta horietara egokitzeko neurriak aintzat hartu beharko dituztenak. Zehazki, Gipuzkoa Klima 2050 Estrategiaren 6. Helburuak hiri hondakinen sorrera murriztea eta tratamendurik gabeko zero isurketa lortzea proposatzen du, eta klima aldaketaren aurka borrokatzeko 4 jarduketa-ildo eta 14 ekintza ditu.

⁴ <http://www.mapama.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/Residuos-2018-Nota-sobre-proceso-informacion-publica-estrategia-espanola-economia-circular.aspx>

⁵ Euskal Autonomia Erkidegoa.


3 GHKPO 2019ren XEDE DIREN HONDAKINEN BILAKAERA, 2008-2017 ALDIAN

3.1 HONDAKINEN BILAKAERA 2008-2017 ALDIAN

EAEEn sortzen diren hiri hondakinak kopuruak behera egin du, bai zifra absolutuetan, bai biztanleko datuetan. Azken urteotako egoera ekonomikoari lotutako kontsumoaren beherakadak eragin handia izan du beherakada horretan, nahiz eta hartu diren prebentzio-neurriek ere eragina izan duten aipatu beherakadan.


Gaikako bilketak azken urteotan Gipuzkoan izan duen bilakaerak egoera benetan positiboa adierazten du. Frakzio organikoaren gaikako bilketak hazkunde nabarmena izan du eta, horrekin batera, udal hondakinak korrante nagusiek ere hazkundera izan dute, jarraian dauden grafikoetan ikus daitekeen bezala.

Irudia 1. Gipuzkoako hiri hondakinak gaikako bilketaren datuak.



Iturria: Gipuzkoako hiri hondakinak Behatokia

Irudia 2. Gipuzkoako hiri hondakinaren korrante nagusien gaikako bilketaren datuak.



Iturria: Gipuzkoako hiri hondakinaren Behatokia

Europak helburu zorrotzak ezarri ditu birziklatzeari dagokionez eta, horiek betetzeko, ez da nahikoa gaikako bilketarako neurriak eta hondakinak tratatzeko azpiegiturak ezartzearekin. Horretaz gainera, birziklatzen ez den gainerako frakzioa Europako politikan eta EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren esparruan ezarritako tratamendu-hierarkiaren arabera kudeatu behar da. Hori horrela, balorizatzen diren azpiegitura guztiak eduki behar dira. Azpiegitura horiek AD 2008n zehazten ziren, eta beharrezkoa da gainerako frakzioa eta birziklatzeko instalazioetan sortzen diren errefusak tratatzeko azpiegiturak ere kontuan hartzea.

Irudia 3. Egun Gipuzkoan dauden hiri hondakin azpiegitura publikoak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako azpiegiturak
Infraestructuras ubicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa



Iturria: Gipuzkoako hiri hondakin Behatokia

GHHKPO 2019k 2008-2017 aldiaren hiri hondakin parametro nagusiek izandako bilakaera aztertuko du, eta baita ADk 2016rako ezartzen zituen helburuen egoera ere.

Analisi hori GFaren "2015eko abenduko GHHKPO-ADren Prognosisa gaurkotzea" dokumentuaren 7. atalean dago jasota; dokumentu hori plangintza-dokumentu honen Eranskin gisa atxikita dago.

Nolanahi ere, Planak, gutxienez, alderdi hauek aztertuko ditu:

- Biztanleriaren bilakaera
- BPGren bilakaera
- EH, IMEHA eta HH hondakinen sorreraren bilakaera
- EH, IMEHA eta HH hondakinen bilketa moten bilakaera
- EH/IMEHA hondakinen proportzioaren bilakaera
- AD 2008ko aurreikuspenen eta benetan gertatutakoaren arteko alderaketa:
 - Biztanleriari dagokionez
 - EH hondakinen sorrerari dagokionez
 - IMEHA hondakinen sorrerari dagokionez
- HH hondakinen sorrerari dagokionez
- EEH hondakinen sorreraren bilakaera
- HUAetako Lohien sorreraren bilakaera
- Kopuru txikitik gertatutako amianto sorreraren bilakaera

3.2 HIRI HONDAKINEN KARAKTERIZAZIOA ETA KONPOSIZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa+eko lurralde-esparruko hiri hondakinen karakterizazio-azterlan bat egitea kontratatu zuen, 2006an; azterlanak arreta berezia jartzen zuen masan jasotako etxeko hondakinetan (gainerako frakzioa) eta edukiontzian gaika bildutako EH hondakinetan: beira, paper-kartoia eta ontzi arinak. Geroago, beste karakterizazioak egin dira 2012 eta 2016 urteetan.

GHHKPO 2019k aintzat hartuko du historikoki egin diren karakterizazioen multzoa eta erabili egingo ditu, azpiegituren tamaina zehazteko beharrezkoak diren masa-balantzeak egiteko alderdi metodologikoak eskatzen duenaren arabera. Abiapuntua materialentzat eskura dauden hobien estimazioa eta prebentzio, berrerabilpen, konpostatze, biometanizatze eta balorizazio energetikorako helburuak betetzea izango dira.

3.3 BIZTANLEKO HH HONDAKINEN ALDAKUNTZA TASEN ETA BIZTANLEKO BPGren ALDAKUNTZA TASEN ARTEKO HARREMANA, 2008-2014

Analisi hori GFaren "2015eko abenduko GHHKPO-ADren Prognosisa gaurkotzea" dokumentuaren 8. atalean dago jasota; dokumentu hori plangintza-dokumentu honen Eranskin gisa atxikita dago.

Atal horretan, biztanleko EH, IMEHA eta HH hondakinen urte arteko aldaketen eta biztanleko BPG aldaketen arteko harremana ezartzen da, harremanaren Pearsonen korrelazio



koefizientea zein den egiaztatzeko. Horrek aldagaien etorkizuneko prognosia egitea ahalbidetzen du, oinarri sendoagoetatik abiatuz.

4 SORRERAREN PROGNOZIA

4.1 AD 2008ren PROGNOZIAREN ETA 2007-2014 BITARTEAN BENETAN GERTATUTAKOAREN ARTEKO ALDERAKETA, HAINBAT ALDAGAI AINTZAT HARTUZ

Analisi hori GFaren "2015eko abenduko GHHKPO-ADren Prognosia gaurkotzea" dokumentuaren 9. atalean dago jasota; dokumentu hori plangintza-dokumentu honen Eranskin gisa atxikita dago.

Atal honetan AD 2008n egindako prognosiak eta benetan, 2007-2014 bitartean, hainbat aldagairekin gertatu dena alderatuko ditugu, 2015 urtea kontraste gisa erabiliz. Biztanleriarekin eta EH, IMEHA eta HH hondakinen sorrera gordinarekin eta biztanleko sorrerarekin gertatutakoa alderatuko dugu.

Atal honetan AD 2008ren prognosian, kudeaketa helburuetarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko-tasentzako eta gaikako bilketa eta gainerako frakziorako 2016rako egiten ziren aurreikuspen eta 2014ko errealitatearen arteko alderaketa jasotzen da. Hori guztia dokumentu honetan Eranskin gisa atxiki den "2015eko abenduko GHHKPO-ADren Prognosia gaurkotzea" dokumentuaren 10. atalean garatutakoaren arabera.

Horretaz gainera, Eranskinean atxikitako Gaurkotzearen dokumentuaren 11 eta 12. ataletan, 2014an sortutako hiri hondakinen tratamendu beharren simulazio bat egiten da, urte horretarako GHHKPO-ADn aurreikusitako azpiegiturak eraikita egon balira, eta baita 2016an sortutako hiri hondakinen tratamendu beharrak (AD 2008ren arabera), urte horretarako AD 2008n aurreikusitako azpiegiturak eraikita egon izan balira.

4.2 2017-2030 ALDIAN SORTUKO DIREN EH, IMEHA, HH HONDAKINEN PROGNOZIA GAURKOTZEA

Atal honetan dokumentu honi Eranskin gisa atxikitako "2015eko abenduko GHHKPO-ADren Prognosia Gaurkotzea" dokumentuaren 13. atalean kalkulaturako Gipuzkoako biztanleriaren bilakaeraren, biztanleko barne produktu gordinaren eta biztanleko sortutako EH, IMEHA eta HH hondakinen prognosiak jasoko ditu.

Datu horietan oinarrituz, 2017-2030-2045 aldirako EH, IMEHA eta HH hondakinen bilakaerari dagokion prognosia kalkulatu da, eta aintzat hartutako hipotesien arabera aipatu aldian zehar sortuko liratekeen hondakin kopuruen estimazioak egiten dira.

Hori horrela, biztanleriari dagokionez, aipatu dokumentuaren 13.1. atalean lau Eszenario aztertzen dira (BIZT1, BIZT2, BIZT3, BIZT4) eta bosgarren Eszenario bat aztertzen da, GHK Eszenarioa, GHK bere garaian AD 2008n aurreikusitako balorizazio energetikorako plantaren dimentsionamendua egokitzeko erabili zuena.

BPGren kasuan, aipatu dokumentuaren 13.2. atalean BPGk aintzat hartzen den aldiaren izan duen bilakaeraren zazpi Eszenario (BPG1, BPG2, BPG3, BPG4, BPG5, BPG6, BPG7) aztertzen dira. BPGren bilakaeraren Eszenario horietan eta iraganean biztanleko BPGren eta biztanleko hondakinen urte arteko aldaketaren artean aurkitutako korrelazioetan oinarrituta, aipatu dokumentuaren 13.3. atalean aipatu aldiaren biztanleko EH, IMEHA eta HH hondakinen bilakaeraren prognosia kalkulatu dugu.

Azkenik, biztanleriaren bilakaeraren Prognosiaren Eszenarioak eta biztanleko hondakinen bilakaeraren Prognosia konbinatuz, 2017-2030-2045 aldiaren zehar sortuko diren hondakinen prognosia kalkulatu dugu.

5 GHHKPO 2019-2030en KUDEAKETA HELBURUAK

Egungo egoera, aplika daitekeen araudi-esparrua, aipatu printzipio orokorrak eta aurkitutako erronkak aintzat hartuta, 2019-2030 GHHKPOn proposatzen diren helburu estrategikoak hauek dira:

2020rako:

- 2010ean sortutako hiri hondakin kopuruari dagokionez, guztira sortutako erabateko kopurua % 10 murriztea, eta baita horien arriskugarritasuna ere.
- Urteko 443 kg/bizt kopurura heltzea etxeko hiri hondakinetan.
- Biohondakinen bilketa eta gaikako bereizketa % 60raino igotzea.
- Paper, zur, plastiko, beira, metalen bilketa eta gaikako bereizketa % 60raino igotzea.
- Pila eta baterien gaikako bilketa eta banaketa % 80ra arte handitzea eta 1991/157/EEE Arteztarauan pila eta metagailu desberdinentzat ezarritako baldintzak betetzea.
- EEH hondakinen bilketa eta gaikako bereizketa % 75eraino igotzea.
- Papera, zura, plastikoa, beira, metalak berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa % 50eraino igotzea.
- Biohondakinak berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa % 50eraino igotzea.
- Sortutako AEEen % 5 berrerabiltzeko prestatzea.
- EEH hondakinak berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa % 70eraino igotzea.
- Hondakinen ezabaketa optimizatzea, lehen mailako hondakinen isurketa ezabatuz, horiek minimizatzeko tresnak garatuz, hori geure lurraldetik kanpo egin dadin saihestuz, EAEn baldintza baliokideetan egin daitekeenean eta dauden zabortegeien eragina minimizatzuz.
- Hondakin gaietan informazioa hobetzea eta gardentasuna hobetzea; 22/2011 Legeak eta hondakinen araudiak irekitzen dituzten aukeratan oinarrituz, hondakin gaietan kudeaketa administratiboa erraztea eta arintzea, eta merkatu berdea eta enpleguaren sorrera sustatzea, Plana garatzearen eta ezartzearen bitartez.
- Hiri-hondakinen %50a berrerabilpen prestatetarako eta birziklatzera bideratzea


2025erako:

- Udal hondakinen % 55 berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea.
- Ontzi hondakin guztien %65 birziklatzea (plastikozkoen %50a, egurrezkoen %25a, burdinezkoen %70a, aluminiozkoen %70, beirazkoen % 70 eta paper-kartoizkoen %75).

2030erako:

- Hiri-hondakinaren %60a berrerabilpen prestaketetara eta birziklatzera bideratzea
- Ontzien hondakinaren % 75 birziklatzea ekonomia zirkularraren paketearen arabera (plastikozkoen %55a, egurrezkoen %30a, burdinezkoen %80a, aluminiozkoen %75, beirazkoen % 75 eta paper-kartoizkoen %85).
- Zabortegetian ezabatzen diren hondakinak sortzen diren hondakin guztien % 10era mugatzea, gehienez.

Irudia 4. Egun hiri hondakinaren birziklapenak Gipuzkoan duen egoera eta ezarritako helburuekiko dagoen distantzia.



Iturria: Gipuzkoako hiri hondakinaren Behatokia

Azken urteotan, udaletan hondakinak biltzeko hainbat sistema ezarri dira, orokorrean, EAE osoan eta, bereziki, Gipuzkoan. Zenbait kasutan bilketa sistema horiek ezartzeko garaian polemika egon bada ere, eskuratu den eskarmentuak eta ezarritako sistema bakoitzarekin lortutako emaitzek balio handia dute bestelako udalerrietan bilketa sistema eraginkorrak ezar ditzaten bultzatzeko.

6 GHHKPO 2019ren KUDEAKETA PROGRAMAK

6.1 PREBENTZIO PROGRAMA

Atal hau idazteko, AD 2008ren 6. atalean garatzen den Prebentzio Programa hartu dugu oinarritzat, eta hedatu eta eguneratu egin dugu, Aurrerapen Dokumentua idatzi zenetik, gai honetan gertatu diren aurrerapenen arabera zabalduz eta eguneratuz.

Atal hau idazteko orduan, gainera, 2008/98/EE Arteztarauko IV. Eranskina, 22/2011 Legearen IV. Eranskina, aipatu Legearen 15. artikuluan aurreikusten diren prebentzio neurriak deskribatzen dituen, 2020rako *EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planear* jasotako neurriak, eta EAEko HHen kudeaketaren hobekuntzarako gida teknikoa izango ditugu aintzat.

Horretaz gainera, Hondakinen Esparru Arteztarauaren eta Hondakin eta kutsatutako lurzoruei buruzko 22/2011 Legearen arabera, hondakinen plangintza orok barne hartu beharko lituzkeen gutxieneko edukitzat jo direnak txertatuko dira. Prebentzio eta berrerabilpenari buruzko gutxieneko eduki horien laburpena jarraian dagoena da:

- Prebentziorako helburuak ezartzea, eta horiek Europak, 22/2011 Legean eta hondakinei buruzko gainerako arauetan ezarritako helburuak lortzeari zein mailatan laguntzen dioten estimatzea.
- Hondakinen prebentzioaren inguruko jardunik onenei buruzko informazioa partekatzeko sistema eratzea, eta Lurraldeko Udal eta Mankomunitateei toki mailan bultzatu beharreko prebentzio programak prestatzen laguntzeko ildoak prestatzea. Hori guztia Gipuzkoako Prebentziorako Behatokiaren (GPB) gidaritzapean egingo da.
- Prebentzio, berrerabilpen eta birziklatze arlora bideratutako diru-laguntza eta beken programa. Gipuzkoako Foru Aldundiak, batetik, urteroko diru-laguntza programa du udalei eta lurraldeko mankomunitateei, enpresa pribatuei eta irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua eta, bestetik, gazteei zuzendutako beka programa. Diru-laguntza lerro horien bitartez, hiri-hondakinen prebentzio, berrerabilpen, eta gaikako bilketara bideratutako ekintza eta proiektuak diruz lagunduak izaten dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlana egiten du Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin eta elikagaien sektoreko enprekin, elikagaien xahuketaren prebentzioan. Elkarlan horri esker, Elikagaien Bankuak, azken minutuko programaren baitan, elikagai jaso, garraiatu eta banatzen ditu. Elkarlan emankor honen bitartez, bazterturiko gizataldeen artean 1.000.000 kilo elikagai jaso eta banatu dira 2017 urtean. Elkarlan honengatik ez balitz, elikagai horiek hondakin gisa kudeatuko lirateke.
- Berriazko hitzarmenak garatzea Ekonomia Zirkularrarekin lotutako gaietarako.
- Gipuzkoako Birziklapen klusterreko (GK Recycling) enprekin ekodiseinu, berrerabilpen eta birziklatze arloetan irtenbideetan aurrera pausoak ematea.

- Ebaluaketa eta berrikuspena. Hondakinak prebenitzeko programaren ebaluazioa, gutxienez, sei urtean behin egingo da, eta hartutako neurrien eraginkortasunaren analisi bat izango du; ebaluazioaren emaitzak jendearen eskura jarriko dira. Administrazio eskudunek, prebentzio neurrien aplikazioan gertatutako aurrerabideak kontrolatzeko eta ebaluatzeko helburuarekin, egindako aurrerabideen aldi behingo ebaluazioak egitea ahalbidetuko duten tresnak zein diren zehaztuko dute, eta helburu eta adierazle kualitatibo eta kuantitatibo zehatzak ezarri ahal izango dituzte.

6.2 BERRERABILTZeko PRESTATZeko PROGRAMA

Atal honen abiapuntua AD 2008an garatutako Prebentzio Programaren 6. atalean onetsitako zehaztapenak dira eta, hala dagokionean, zehaztapen horiek eguneratu, osatu eta zabaldu egingo dira. Gutxienez, jarduketa hauek jasoko dira:

- Berrerabiltzeko prestaketa hobetzeko hartu beharreko neurriak.
- Berrerabiltzeko prestatzeko helburuak ezartzea, eta horiek Europak 22/2011 Legean eta hondakinei buruzko gainerako arauetan ezarritako helburuak lortzeari zein mailatan laguntzen dioten estimatzea.
- Bilketa sistema berrien eta horiei dagozkien inbertsioen beharra ebaluatzea.
- Prebentzio, berrerabilpen eta birziklapen gaietan egiten diren jarduketentzako diru-laguntza eta beken programak. Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal, Mankomunitate, enpresa pribatu, irabazi asmorik gabeko elkarte eta gazte ikertzaileentzako diru-laguntza ildo du; haren bidez hiri hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena lortzeko jarduketa eta proiektuak finantzatzen dira.

6.3 GAIKAKO BILKETARAKO ETA BIRZIKLATZeko PROGRAMA, KONPOSTATZEA/BIOMETANIZATZEA BARNE HARTZEN DITUENA

Atal honen abiapuntua Birziklatzeko Programaren 7. atalean eta AD 2008ren 8. atalean onetsitako zehaztapenak dira eta, hala dagokionean, zehaztapen horiek eguneratu, osatu eta zabaldu egingo dira.

Hondakinen gaikako bilketa-tasa handitzera eta inpropio kopurua murriztera bideratutako estrategia bat zehaztuko da. Horretaz gainera, hondakin tipologia berrien gaikako bilketa zabaltzeko beharra aztertuko da.

Estrategiak gaikako bilketarako hainbat alternatiba izango ditu aintzat, denboran zehar birziklatzea eta herritarren parte-hartzea sustatzen duten politiken arabera. Analisiaren emaitzak Planaren dokumentuan islatuko dira, eta Udal eta Mankomunitateen eskura jarriko dira. Haiek, behe-horniduraren kudeaketaren arduradun gisa, GHHKPO 2019n aurreikusitako

helburuak erdiestea ahalbidetuko dien alternatiba edo alternatiben konbinazioa aukeratuko dute.

Dagoeneko ezarrita dauden ereduak eta ezagunak diren ereduena aldaerak, aurrerabideak eta berrikuntzak aztertuko dira. Bereziki eta gutxienez, jarraian aipatzen diren sistemak aztertuko dira:

- Gaikako bilketan eskatzen diren frakzio guztien atez ateko bilketa.
- Gaikako bilketan eskatzen den frakzioen baten atez ateko bilketa.
- Espaloian dauden edukiontzi bidezko bilketa, bost edukiontzirekin eta giltza mekanikoz itxitako biohondakinen edukiontzirekin.
- Espaloian dauden edukiontzi bidezko bilketa, bost edukiontzirekin eta giltza elektronikoz itxitako biohondakinen edukiontzirekin.
- Espaloian dauden edukiontzi bidezko bilketa, bost edukiontzirekin eta giltza mekanikoz itxitako biohondakinen edukiontzirekin eta gainerako frakziorako edukiontzirekin.
- Espaloian dauden edukiontzi bidezko bilketa, bost edukiontzirekin eta giltza elektronikoz itxitako biohondakinen edukiontzirekin eta gainerako frakziorako edukiontzirekin.
- Espaloian dauden edukiontzi bidezko bilketa, bost edukiontzirekin eta giltza elektronikoz itxitako biohondakinen edukiontzirekin, ontzientzako edukiontzirekin eta gainerako frakziorako edukiontzirekin.
- Espaloian dauden edukiontzi bidezko bilketa, bost sentsoredun edukiontzirekin eta giltza elektronikoz itxitako biohondakinen edukiontzirekin, ontzientzako edukiontzirekin eta gainerako frakziorako edukiontzirekin, erabiltzaile bakoitzak botatzen dituen hondakinak banaka pisatzeko baskularekin.
- Borondatez Garbigune, minigarbigune, zerbitzu mugikor, eta abarretara eramaten diren hondakinen gaikako bilketa.

Prebentzio, berrerabilpen eta birziklapen gaietan egiten diren jarduketentzako diru-laguntzen programa. Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal, Mankomunitate, enpresa pribatu eta irabazi asmorik gabeko elkarreentzako diru-laguntzen urteko ildo da; haren bidez hiri hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena lortzeko jarduketak finantzatzen dira

Azkenik, ezarritako helburuak erdiesteko ezarri beharreko ekintzak jasoko dituen plana zehaztuko da, eta baita identifikatutako hobekuntzak abiaraztekoa ere, neurri horiek ezartzeko kronograma bat eta ekintza bakoitzaren lehentasun-maila atxikiz.

Aztertutako gaikako bilketarako proposamen guztien helburua jarraian aipatzen diren arauetan ezarritako helburuak betetzea izango da: 2008/98/EE hondakinen Arzetaraua, 94/62/EE ontzien eta ontzien hondakinen Arzetaraua, 1999/31/EE hondakinak isurtzearen Arzetaraua, eta 2000/53/EE erabiltzen ez diren ibilgailuen Arzetaraua, 2006/66/EE bateria

eta metagailuen hondakinen Arzetaraua eta 2012/19/EB tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen Arzetaraua. Arau horietan guztietan ezarritako helburuak izango dira aintzat, betiere, Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an *Ekonomia Zirkularraren Paketearen* baitan, haren aldaketari dagokionez hartutako behin-betiko akordioekin. Era berean, *Hondakinak Kudeatzeko Estatuko 2016-2022 Esparru Planean* (PEMAR) eta *EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020 Planean* jasotako helburuak beteko dira.

Halaber, aparteko garrantzia izango dute Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiak, Gipuzkoako Birziklapen Klusterrak eta haren batzorde betearazleak den "GK Recycling"ek, zein "GK Green Fashion" Moda Iraunkorreko Klusterrak.

6.4 BESTELAKO BALORIZAZIOEN GAINEKO PROGRAMA

Atal honen abiapuntua AD 2008ko Bestelako Balorizazioen Programaren 9. atalean onetsitako zehaztapenak izango dira, hala dagokionean, horiek eguneratzeko, osatzeko eta zabaltzeko.

Egindako prognositik abiatuta, hondakinen hierarkia jarraituz eta horien bero-ahalmena aintzat hartuz, balorizazio energetikoa ez den beste aukerarik ez duten hondakinak zein diren identifikatuko da. Balorizazio energetikorako instalazioen plangintzaren helburua ahalik eta eraginkortasun energetikorik handiena lortzea izango da, eta, betiere, legedian balorizazioari dagokionez ezarritako eraginkortasun energetikoaren mugak gainditu beharko ditu.

6.5 EZABAPENA OPTIMIZATZEARI BURUZKO PROGRAMA

GHHKPO 2019ak Gipuzkoak hiri hondakinen isurpenerako zabortege gabeko agertokia eta isurpenak ahalik eta gehien gutxitzeko helburua bereganatzen ditu, soilik kudeatzaile bidez balorizazio energetikorako plantako errautsen isurketa aurreikusten da, horien balorizaziorako aukerak garatzen ez diren bitartean.

Isurketen legediarekin bat etorriz, plangintzak bermatu behar du lehen mailako hondakinik zabortegetara isurtzen ez dela, eta geroago aprobetxamendua izan dezakeen bigarren mailako hondakinik zabortegetara isurtzen ez dela, legediak zehatz-mehatz aipatzen dituen salbuespenen kasuan izan ezik. Orobat, kontutan hartuko da 2030. urterako *Ekonomia Zirkularraren Paketeak* ezarritako helburua: gehienez sortutako hiri hondakinen %10 isuriko da zabortegetan.

Planak aintzat hartuko du kopuru txikietan dagoen amiantoaren arazoa, lan txiki edo antzekoetan agertzen dena, Gipuzkoako lurralde historiko osoan haren aurreko irtenbide bat emanaz. Beraz, Garbiguneetan partikularren amianto hondakin kopuru txikiak jasotzeko zerbitzua eskaitzeko aukerak aztertuko dituen atal bat izango du Planak.

7 BEHARREZKO AZPIEGITURAK

GHHKPOren Aurrerapen Dokumentuan aurreikusten den plangintza egokitzen jotzen da, CGM2aren eraikuntzarekin Gipuzkoako hondakinen tratamendurako azpiegiturak osatzen baitira eta, ondorioz, ez dira berriak aurreikusten epe motzera eta ertainera. Gipuzkoa 2030. urtera arte hiri-hondakinen tratamendurako autosufizientea izango dela aurreikusiz, GHHKPO-k egoera aztertu eta behar potentzialak balioetsiko ditu:

Aurrerago ekingo zaio dagoeneko aurreikusita dauden azpiegituren berdimentsionamenduaren gaiari, Plana prestatzeko hurrengo faseetan, hain zuzen ere.

Ezarritako helburuen arabera, aztertuko da lurraldean azpiegitura berriak edukitzeko beharra:

- Ontziak banatzeko planta berria(k) eta/edo daudenak egokitzea. Horretaz gainera, sailkatu gabeko ontziak bereizteko eta sailkatzeko lerro berriak bultzatzearen bideragarritasuna aztertuko da, puntu berdearena esaterako, ontzi horiek birzikla daitezzen.
- Konpostatzeko eta/edo biometanizatzeako planta berria(k) eta/edo daudenak egokitzea. GHHKPO 2019n lehentasuntzat jotzen da tratamendu biologikorako eta konpost bihurtzeko aukerak eta horiek lehentasunezko bokaziotzat dituzten hondakinek tratamendu hori jasotzea, gainerakoentzat utziz bestelako tratamendu-alternatiba posibleak.
- Konpost bihurtzeko tratamendu biologikoa jasotzeko bokazioa duten hondakinen kasuan, funtsezkoa da horiek gaika biltzea, jatorrian bereizi ostean. Jatorrian bereiztea eta gaika biltzea beharrezko baldintza bereziki duen frakzioen bat badago, horixe da geroago konpostatzeko eragiketetara bideratuko diren frakzioen kasua. Horren arrazoia hau da: materia organiko konpostagarriaren (MOK-biohondakinak) kasuan, produktuaren amaierako kalitatea bermatzeko beharrezkoa da produktuaren amaierako kalitatea honda dezaketen substantziekin kutsa dadin saihestea, eta horrexegatik, ahalik eta gehien saihestu behar da materia organikoaren eta kutsatzaileak izan daitezkeen gainerako frakzioen arteko kontaktua. Hori egitea da sortutako konpostak nekazaritzan erabiltzeko, indarrean dagoen araudiak egiten dituen kalitate eskakizunak beteko direla bermatzeko modu bakarra.
- Berrerabiltzeko prestatzeko planta berria(k) eta Ekocenter berria(k)
- Planaren zati izango diren azpiegituren definizioan aintzat hartuko dira, modu berezian, transferentzia-estazioekin lotutako beharrak.

Azpiegitura horiek garatzeko, hasiera batean, jarraian adierazten diren alternatibak aztertuko dira kasu bakoitzean:

Ontziak

- 1. Alternatiba: Azpiegitura berriak ez eraikitzea eta egun daudenak ez handitzea
- 2. Alternatiba: Egun dauden azpiegiturak handitzea
- 3. Alternatiba: Azpiegitura berria(k) eraikitzea

Biohondakinak

- 1. Alternatiba: Dauden azpiegiturak handitzea (biometanizatzea⁶ eta konpostatzea)
- 2. Alternatiba: Biometanizatzeoko planta berri bat eraikitzea
- 3. Alternatiba: Konpostatzeko planta berri bat eraikitzea

Berrerabil daitezkeenak

- 1. Alternatiba: Ekocenter berria eraikitzea
- 2. Alternatiba: Ekocenter berriak eta berrerabiltzeko prestaketarako planta zentralizatu bat eraikitzea
- 3. Alternatiba: Ekocenter berriak eta berrerabiltzeko prestaketarako planta deszentralizatuak eraikitzea

Prognosian, ezarritako eszenarioetan eta kuantifikatutako tratamendu beharretan oinarrituz identifikatuko dira hiri hondakin "goi-horniduraren" eta "behe-horniduraren" kudeaketarako azpiegitura berriak izateko beharrak. Beharrezkoa balitz, behar horien hasierako dimentsionamendua egingo da eta, horien lehentasunaren arabera, kronograma bat ezarriko da azpiegiturak eraikitzeke eta/edo dagoeneko existitzen direnak egokitzeko.

Bestalde, lurraldean dauden titulartasun eta kudeaketa pribatuko berreskuratzeko eta birziklitzeko planten diagnostikoa egingo da, berreskuratutako materialen zikloa ixten duten instalazio berriak eta/edo lanpostu berriak sustatzea ahalbidetuko duten egungo eta etorkizuneko beharrak edo aukerak zein diren identifikatzeko asmoz.

Kasu guztietan aintzat hartuko den alternatiba bat neurririk ez abiaraztearena da, hau da, 0 alternatiba deritzona; hori eginez gero, egungo kudeaketaren bilakaera ahalbidetzen da, eta egoera horretan lortuko litzatekeen emaitzaren aurreiskupena egiten da. Nolanahi ere, proposatzen diren alternatibek araudian eta Planean bertan ezarritako helburuei egiten dieten ekarpenari dagokionez duten koherentzia aztertuko da, aukerarik egokiena hautatzeko helburuarekin. Analisisian kostua/eraginkortasuna ebaluatuko dira eta, amaieran,

⁶ Dokumentu hau idatzi den egunean, GIG2 eraikitzeke esleipenari ekin zaio; bertan biometanizatzeke planta sartzen da.



hartutako neurriek, bere osotasunean, GHHKPO 2019an proposatutako helburuak betetzea ahalbidetzen ote duten egiaztatutako da.

8 INBERTSIOAK eta FINANTZAKETA

Programa bakoitza garatzeko aurreikusitako inbertsioen kopurua zehaztuko da, eta baita programa bakarrean sartzen ez diren ekintza horizontalei eta azpiegiturei dagozkien inbertsioena ere, urteka banakatuta.

Inbertsioen Programatik eta aurreikusten diren finantzaketa-iturrietatik abiatuta, Planaren indarraldian zehar egongo diren finantzaketa-beharren estimazioa egingo da, eta horiei aurre egiteko finantzaketa-sistema jasoko da, plangintza berrian islatutako jardun eta azpiegiturekin lotutako inbertsio-konpromisoak bermatuz.

9 KUDEAKETAREN ANTOLAMENDUA

Atal honen abiapuntua AD 2008ko Kudeaketa Antolatzeari buruzko 11. atalean onetsitako zehaztapenak izango dira, hala dagokionean, horiek eguneratzeko, osatzeko eta zabaltzeko.

Atal honetan Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren antolamendua hobetzeko helburua duten printzipio eta ekintzak garatuko dira, hobekuntza hori prebentzio, berrerabilpen, birziklapen, konpostatze eta balorizazio energetiko arloetan ezarritako helburuak betetzen denaren arabera neurtuz. Hori guztia zerbitzuen erabiltzaileentzat jasagarria den prezioarekin egingo da, eta, gertuen dauden eta Europako kudeaketa tekniko eta ingurumen-kudeaketa bikaintzat jo diren bestelako kudeaketa sistemekin alderatuz, eraginkortasunez eginez.

Udalen, Mankomunitateen, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zeregina aztertuko da, eta hobekuntzak proposatuko dira hainbat arlotan: prebentzio politiken koordinazioa eta horien inguruko lankidetzak, altzairuak eta tresneria bezalako hondakinak berreskuratzearen eraginkortasuna handitzea, eta jatorrian bereizteari laguntzen dioten eta gaikako bilketa programatan eta birziklatutako eta konpostatutako kopuruen hazkundera parte hartzea sustatzen duten tresna ekonomikoak garatzea.

Halaber, oso aintzat izango da erakunde hauek izango duten zeregina: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokia, Gipuzkoako Birziklapen Klusterra eta haren batzorde betearazlea den "GK Recycling", zein "GK Green Fashion" Moda Iraunkorreko Klusterra, Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa, eta GHHKPO 2019ren Informazio, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea.

Planaren egikaritze-esparruan, atek zabalduko zaizkie lankidetzak publiko eta pribatuko ereduak.

10 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TRESNAK

Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren esparruan, zenbait tresna zehaztuko dira, Planean jasotako neurrien egikaritze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eta lortutako emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, hala nola, GHHKPO 2019ren Informazio, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea.

Jarraipen hori eginez, Planak behar adinako malgutasuna izango du, behar bezala gara dadin, eta emaitzen, araudi aldaketan edo maila handiagoko plangintza-elementuen arabera, beharrezkoak diren planteamendu berriek bultzatutako aldaketak egin ahal izango dira.

Planaren denbora-muga dela eta, beharrezkotzat jotzen da aldian behingo berrikuspenak egitea. 2025ean lehenengo berrikuspen orokorra egin dadin proposatzen da, lege ezarritako helburuak betetzen direla aztertzeke, eta EAEko eta estatuko plangintzak betetzeko egiten den ekarpena aztertzeke. Planaren aurrerabidearen bigarren eta azken berrikuspena 2030an egingo litzateke,; lurralderako hurrengo hondakin planentzako abiapuntu gisa baliatuko litzateke.

Berrikuntza gisa, 2019ko GHHKPOn martxan dagoen ikerketa epideomiologiko bat barneratzen du, non zero eszenarioaren ebaluazioa egingo den. Ebaluazio horretan, balorizazio energetikorako azpiegituraren eragin-eremuko osasun-egoera eta kutsatzaileen presentzia hartuko da aintzat, eta jagoletza plana zehaztu eta abiarazi egingo da, azpiegituraren eraikuntza lanek iraun bitartean, eta azpiegitura abian jartzen denean. Helburua faktore epidemiologikoak monitorizatzea da, osasunarekin lotutako faktoreak, hedapena, maiztasuna, faktore erabakigarriak, aurreikuspenak eta kontrola aztertzeke asmoz. GFAk biztanleriaren osasunaren bermatuko du GHHKPO 2019ren azpiegituren garapen osoan zehar.

11 PARTAIDETZA PUBLIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza behar praktiko gisa eta taldeko ikasbiderako mekanismo gisa ulertzen du. Aldundiaren nahia hiri hondakinaren inguruan ahalik eta ikuspegi eta sentsibilitate gehien txertatzea da, erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezaten, erakundearen etekina hobetzeko eta kudeaketa publikoa egiteko kultura berri bat modu progresiboan ezartzeko.

Diseinatu eta garatu behar den partaidetzazko deliberazio prozesu benetako emaitza hautemangarriak lortzeko helburua duen tresna gisa ulertzen da, eta ez helburu bat bezala, bere horretan. Hori dela eta, prozesu honen esparruan, partaidetza hobetzeko eragileen mapa eta zenbait aintzatespen prestatuko dira, oinarrizko kontzeptuak argituz eta partaidetza sustatzeko bestelako jarraibideak argituz, adibidez, eztabaidagaia eratuko duten elementuak argituz. Partaidetzaren zama izapidetzaren hasierako faseetan kokatuko da, parte hartzen duten eragileen esku-hartzerako marjina handiagoa lortzeko asmoz. Hasieran eta funtsean, egiturazko partaidetzaren irizpideak aplikatuko dira, hau da, gaian eskudunak diren eta zuzeneko erantzukizuna duten eragileak aintzat hartuko dira, partaidetza kuantitatiboa baliatu beharrean. Baina, gainera, prozesuari zabaltze-maila mistoa aplikatuko zaio, bestelako gizarte eragileekin saio irekiak eginez. Partaidetzarako guneetan sortzen diren proposamenek gomendio izaera izango dute, ez erabaki izaera; hala ere, eredu dialogiko bat jarraituz, oinarri zabaleko akordioak lortzeko lan egingo da.

Besteak beste, garatuko den partaidetza prozesuan aipatzekoa den helburuetako bat Gipuzkoako hiri hondakinaren kudeaketaren partaidetzarako etorkizuneko eredu argitzera bideratzen da; eredu sistematizatua eta adostua izango da, eta GHHKPO 2019n aurreikusitako ekintzak lortzea erraztuko du.

Esparru juridiko gisa, uztailak 18ko 27/2006 legean aurreikusitako betebeharez gain (lege horrek arautzen du, besteak beste, jendeak duen eskubidea ingurumenarekin zerikusia duten plan, programa eta izaera orokorreko xedapen jakin batzuen prestaketan parte hartzeko), uztailaren 8ko Gipuzkoako lurralde historikoko Herritarren Partaidetzari buruzko 1/2010 Foru Arauan ezarritakoa aintzat hartuko da, aurreko helburuak dituen partaidetzazko deliberazio prozesu bat aurrera eramango delarik.

12 GENEROAREN ERAGINAREN EBALUAZIOA

2015eko martxoaren 9ko 2/2015 foru arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, Plana genero eraginaren ebaluazioaren prozedura egingo da. Hala, aldez aurretiko ebaluazioa egingo da generoari buruzko alderdiak identifikatzeko eta emakumeen eta gizonen ezberdintasuna ezabatzeko ekintza eta neurriak aurreikusiko dira.

13 KLIMA-ALDAKETA ETA BZA

Aldaketa klimatikoa Aldundiaren ingurumen politikaren lehentasuna izanik, Gipuzkoako Klima-Aldaketaren Aurkako Borroka-Estrategian 2050 jasotzen den bezala, eta nahiz eta hondakinen eragina aldaketa klimatikoan txikia izan beste hainbat sektoreekin alderatuz, garraioa, esaterako, badago hondakinen sektorearekin lotutako berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzeko gaitasun esanguratsua. Hortaz, GHHKPOk berotegi efektuko gasen emisioak nabarmen gutxitzen dituen neurriak hartuko ditu kontuan.

Bestalde, GHHKPOk 19 Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren bizi zikloaren azterketa bat eransten du. Bertan, zaborteia duen hainbat eszenatokiren konparaketa ikus daiteke Gipuzkoako 1 eta 2 Ingurumen Guneko azpiegiturekin hartutako behin betiko konponbidearekin.. Konparaketa honi esker eszenatoki bakoitzeko Ingurumen egokitasuna egiaztatu ahal izango da.

14 NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

Garapen Iraunkorreko Helburuak, Munduko Helburuak gisa ezagunak direnak ere, hiru alderdietan, hau da, ekonomikoan, sozialean, eta ingurumenean, garapen iraunkorra bultzatzeko neurriak hartzeko dei unibertsala osatzen dute. 17 helburu hauek elkar artean lotuta, hainbat eremu barne hartzen ditu, hala nola, aldaketa klimatikoa eta ekoizpena eta kontsumo arduratsua, non beste neurrien artean eskatzen den hiri hondakinen prebentzioa eta birziklapena. GHHKPOk Garapen Iraunkorreko Helburuak kontuan hartuko ditu eta egingo dizkion ekarpenak identifikatu.



15 ERANSKINA

15.1 GHHKPO-ADren Prognosia gaurkotzea Dokumentua